


Euskal AEko BPG % 3,2 txikitu zen 2020ko lehen hiruhilekoan

Enpleguaren atzerapena, lanaldi osoaren baliokide diren lanpostuei dagokienez, % 2,8koa dela kalkulatzen da

Euskal AEko BPG % 3,2 murriztu da 2020ko lehen hiruhilekoan, 2019ko hiruhileko beraren aldean, Eustatek egindako estimazioen arabera.

2019ko azken hiruhilekoa dela eta, Euskal AEko ekonomiak % 4,7 egin du behera. Estimazio horien arabera, hamarren bi egin dute okerrera pasa den apirilaren 24ko Hiruhileroko Kontuen Aurrerapenean eskuratutakoek. COVID-19aren Pandemiari Aurre egiteko Errege Dekretuaren (martxoaren 14ko 463/2020) ondoren hartutako neurriek martxoaren bigarren hamabostaldian eragile ekonomikoen jardura ugariren gelditze partziala edo erabatekoa ekarri zuten; geldialdi hori zaila zen auresaten, eta, halaber, oso zaila izan zen haren estimazioa apirilean.

Euskal AEko BPGren % 3,2ko urte arteko beherakada Eurogune-19rako azken estimazioarekin bat dator, baina EB-27rako ohartarazitakoaren azpitik dago (-% 2,6), baina Espainiaren gainetik, % 4,1 egin baitzuen atzera.



Eskaintzaren ikuspuntutik, sektore guztiek izan dute beren balio erantsiaren urte arteko beherakada, Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren kasuan eta Administrazio publikoaren, hezkuntzaren, osasunaren eta, Zerbitzuen sektorearen barruan, gizarte-zerbitzuen adarrean izan ezik. Kasu guztietan bat-bateko zeinu-aldaketa izan da azken urteotan ikusi den hazkunde eutsiaren bilakaeran.

Industriak -% 3,6ko urte arteko aldakuntza-tasa izan du aurreko urteko hiruhileko beraren aldean. 2019ko azken hiruhilekoa dela eta, estimatutako aldakuntza -% 4,9koa da. **Manufaktura-industriak** industria-multzoak baino indar handiagoarekin egin du behera, honako tasa estimatu honekin: urte arteko -% 4,3 eta hiruhilekoen arteko -% 5,2.

Eraikuntzaren sektorean, urteko lehen hiruhilekoan, % 2,7ko atzerapena antzeman da, 2019ko hiruhileko beraren aldean; horrek esan nahi du jarduera murriztu egin dela, % 4,9, aurreko hiruhilekoaren aldean.

BPG m/p. Eskaintza. Bolumen-indize kateatuak. Urte arteko aldakuntza-tasak. Euskal AE. %

	2018	2019	2019				2020
			I	II	III	IV	I
NEKAZARITZA, ABELTZAINZA, ARRANTZA	7,9	0,6	1,7	-0,1	0,2	0,4	3,5
INDUSTRIA ETA ENERGIA	2,5	1,1	0,4	1,0	0,8	2,3	-3,6
Manufaktura-industria	2,8	1,0	0,4	0,9	0,5	2,1	-4,3
ERAIKUNTZA	4,1	3,1	4,6	3,2	2,9	1,9	-2,7
ZERBITZUAK	2,7	2,5	2,6	2,5	2,5	2,2	-2,8
Merkataritza, ostalaritza eta garraioa	4,0	2,4	2,9	2,5	2,3	2,1	-4,2
Herri-administrazioa, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerb.	2,1	2,2	2,3	2,3	2,4	1,9	1,2
Gainerako zerbitzuak	2,2	2,6	2,7	2,6	2,7	2,4	-4,0
BALIO ERANTSI GORDINA oinarritzko prezioetan	2,8	2,2	2,2	2,2	2,1	2,2	-2,9
PRODUKTUEN GAINENKOA ZERGA GARBIAK	4,9	2,1	2,2	2,1	1,8	2,3	-5,1
BARNE PRODUKTU GORDINA merkatu-preziotan	3,0	2,2	2,2	2,2	2,1	2,2	-3,2

Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak

Iturria: Eustat. Hiruhileroko kontuak

Zerbitzuen sektoreko jarduera globalak urteko lehen hiruhilekoan aurreko hiruhilekoetan izan den hazkunde-bidearekin amaitu du; % 2,8ko urte arteko beherakada izan du, eta % 4,2ko beherakada 2019ko azken hiruhilekoaren aldean.

Zerbitzuen portaera ez da homogeneoa adarren arabera. **Merkataritza, ostalaritza eta garraioaren** adarrak izan du beherakada handiena, % 4,2koa, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, eta % 5,7koa, aurreko hiruhilekoaren aldean.

Administrazio publikoaren, hezkuntzaren, osasunaren eta gizarte-zerbitzuen adarrean, berriz, % 1,2ko urte arteko hazkundera egon da, eta horrek dakar balio erantsi estimatua aurreko hiruhilekorako izandakoaren antzekoa izatea (% 0ko aldakuntza).

Azkenik, **Gainerako zerbitzuen** adarrak barne hartzen dituen jarduerak –besteak beste higiezin jarduerak, profesionalenak, zientifikoak eta teknikoak, bai eta finantzetakoak eta aseguruetoak

ere–, oro har, atzerapen nabarmena izan dute, estimazioen arabera % 4,0koa, urte arteko terminoetan, eta % 5,4koa, hiruhilekoen arteko terminoetan.

Urteko lehen hiruhilekoan sektoreko agregatuen portaerak **Balio Erantsiaren** bilakaera negatiboa ekarri du, bai urte arteko terminoetan (% 2,9 baxuagoa), bai hiruhilekoen arteko terminoetan (% 4,4ko atzerapena). Hori ez dator bat azken urteotan ikusitako balio positibo etengabeekin.

BPG m/p. Eskaintza. Bolumen-indize kateatuak. Hiruhileko arteko aldakuntza-tasak. Euskal AE. %

	2019				2020
	I	II	III	IV	I
NEKAZARITZA, ABELTZAINITZA, ARRANTZA	-7,7	5,4	-3,3	6,7	-4,8
INDUSTRIA ETA ENERGIA	1,0	1,0	-0,1	0,5	-4,9
Manufaktura-industria	1,1	0,9	-0,4	0,5	-5,2
ERAIKUNTZA	-0,4	0,6	1,2	0,4	-4,9
ZERBITZUAK	0,7	0,3	0,6	0,5	-4,2
Merkataritza, ostalaritza eta garraioa	0,5	0,4	0,6	0,6	-5,7
Herri-administrazioa, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerb.	0,7	0,5	0,6	0,1	0,0
Gainerako zerbitzuak	0,9	0,3	0,6	0,6	-5,4
BALIO ERANTSI GORDINA oinarritzko prezioetan	0,6	0,6	0,4	0,5	-4,4
PRODUKTUEN GAINEKO ZERGA GARBIAK	0,2	1,4	0,6	0,1	-7,0
BARNE PRODUKTU GORDINA merkatu-preziotan	0,6	0,6	0,5	0,5	-4,7

Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak

Iturria: Eustat. Hiruhileroko kontuak

Eskariaren aldetik, Barne Eskariaren portaera BPGren guztizkoarena bezain negatiboa izan da; urte arteko beherakada % 3,1ekoa izan da. Bere bi osagaien bilakaera –Azken kontsumoko gastua eta Kapital-eraketa gordinak– negatiboa izan da; urte arteko % 3,0ko eta % 3,6ko beherakadak egon dira, hurrenez hurren.

Etxeetako azken kontsumoko gastua eta EZIAGE (kontsumo pribatua) bat-batean % 4,8 murriztu da, 2019ko lehen hiruhilekoaren aldean. Aurreko hiruhilekoaren aldean, beherakada are latzagoa da, % 5,9koa.

Kontsumo publikoak (administrazio publikoen azken kontsumoko gastua), berriz, % 4,1eko hazkundea izan du urte arteko terminoetan, alegia % 3,0ko igoera, aurreko hiruhilekoaren aldean.

Administrazio publikoen azken kontsumoko gastuaren baterako bilakaeraren ondorioz, Etxeetako azken kontsumoko gastuarekin batera, **Azken kontsumoko gastuak** % 3,0 beherakada izan du. Aurreko hiruhilekoaren aldean, gastuaren murrizketa % 4,0koa izan da.

Kapital-eraketa gordinak (Inbertsioa) ere zeinua aldatu du, 2020ko lehen hiruhilekoan -% 3,6ko urte arteko aldakuntza-tasarekin. 2019ko azken hiruhilekoa dela eta, beherakada % 5,4koa izan da.

Ekipo-ondasunen inbertsioak lehen hiruhileko honetan portaera erabat negatiboa izan du; urte arteko beherakada-tasa % 5,0ekoa izan da, eta hiruhilekoen artekoa, -% 5,8koa. **Gainerako kapital-eraketa gordinetan** –lotuago dago eraikuntzaren sektorearekin–, urte arteko beherakada neurritzkoagoa izan da; aldakuntza-tasa -% 2,8koa izan da, baina, aurreko hiruhilekoaren aldean, beherakada ere nabarmena izan da, hiruhilekoen arteko -% 5,2ko tasa.

BPG m/p. Eskaria. Bolumen-indize kateatuak. Urte arteko aldakuntza-tasak. Euskal AE. %

	2018	2019	2019				2020
			I	II	III	IV	I
GASTUA AZKEN KONTSUMOAN	2,5	1,9	2,1	1,9	1,9	1,7	-3,0
Familien eta EZMADE-en azken kontsumo gastua	2,7	1,9	2,2	1,9	1,8	1,5	-4,8
Herri-administrazioen azken kontsumo gastua	1,6	2,1	1,9	2,1	2,2	2,2	4,1
KAPITAL-ERAKETA GORDINA	4,7	2,8	4,0	2,5	2,2	2,4	-3,6
Kapital finkoaren eraketa gordina ekipo-ondasunetan	3,7	2,3	3,3	2,2	0,8	2,9	-5,0
Gainerako kapital-eraketa gordina	5,2	3,0	4,4	2,6	2,9	2,1	-2,8
BARNE-ESKARIA	3,0	2,1	2,6	2,0	2,0	1,9	-3,1
ONDASUN ETA ZERBITZUEN ESORTAZIOAK	3,0	0,4	-1,4	2,8	-0,9	1,3	-7,5
ONDASUN ETA ZERBITZUEN INPORTAZIOAK	3,0	0,4	-0,8	2,6	-0,9	0,9	-7,3
BARNE PRODUKTU GORDINA merkatu-preziotan	3,0	2,2	2,2	2,2	2,1	2,2	-3,2

Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak

Iturria: Eustat. Hiruhileroko kontuak

Barne-eskaria Azken kontsumoko gastuak eta Kapital-eraketa gordinak eratzen dute, eta aldakuntza negatiboa izan du urte arteko terminoetan, -% 3,1ekoa. Beherakada hori BPG-ko estimatutakoaren azpitik dago (-% 3,2); beraz, **Kanpo-sektorearen** ekarpena negatiboa izan da urteko lehen hiruhileko honetan. **Esportazioek** % 7,5 egin dute behera aurreko urteko lehen hiruhilekoaren aldean, eta **Inportazioek** beherakada txikiagoa izan dute, % 7,3koa. Kanpo-saldoak, beraz, txarrera egin du pixka bat.

BPG m/p. Eskaria. Bolumen-indize kateatuak. Hiruhileko arteko aldakuntza-tasak. Euskal AE. %

	2019				2020
	I	II	III	IV	I
GASTUA AZKEN KONTSUMOAN	0,6	0,4	0,4	0,3	-4,0
Familien eta EZMADE-en azken kontsumo gastua	0,4	0,3	0,5	0,3	-5,9
Herri-administrazioen azken kontsumo gastua	1,2	0,5	0,0	0,4	3,0
KAPITAL-ERAKETA GORDINA	0,5	-0,3	0,6	1,6	-5,4
Kapital finkoaren eraketa gordina ekipo-ondasunetan	2,1	-0,4	-1,5	2,8	-5,8
Gainerako kapital-eraketa gordina	-0,4	-0,2	1,8	0,9	-5,2
ONDASUN ETA ZERBITZUEN ESORTAZIOAK	-0,7	2,8	-3,1	2,5	-9,4
ONDASUN ETA ZERBITZUEN INPORTAZIOAK	-0,7	2,1	-3,0	2,6	-8,7
BARNE PRODUKTU GORDINA merkatu-preziotan	0,6	0,6	0,5	0,5	-4,7

Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak

Iturria: Eustat. Hiruhileroko kontuak

Enplegua dela eta (**Lanaldi osoaren baliokide diren lanpostutan** neurtuta), 2020ko lehen hiruhilekoan % 2,8 egin zuen atzera urte arteko tasan; kasu horretan, hiru hamarren ahuldu egin da pasa den apirilaren 24ko Hiruhileroko Kontuen Aurrerapenean kalkulaturako beherakada. Hiru hileroko terminoetan, % 3,8ko beherakada kalkulatu da. Lehen hiruhilekoan ikusi diren atzerapen

horiek orain arte Eustaten hiru hileroko kontuetan estimatu diren hiruhileko guztietako nabarmenenak dira.

Hori horrela, gogorarazi behar da lanpostuaren definizioak, Kontuen Sistema Europarraren (KSE) arabera, bere zenbaketan aldi baterako lan egiten ez duten baina beren lanpostuarekin – bermearekin edo berriro lanean hasteko datari buruzko akordioarekin, esaterako **ABEEEE**en kasualtura formala duten pertsonak uzten ditu kanpoan.

Enplegu-mailaren urte arteko bilakaera negatiboa izan da jarduera-adar guztietan, bai urte arteko terminoetan, bai hiruhileko terminoetan. Lehen sektoreak % 1,4ko enplegu-beherakada izan du, 2019ko lehen hiruhilekoaren aldean, eta % 1,7koa, aurreko hiruhilekoaren aldean. Urte arteko atzerapena egon da Industriaren sektorean eta Eraikuntzaren sektorean (% 3,4koa), baina, hiruhilekoen arteko terminoetan, industriaren portaera (-% 3,5) Eraikuntzarena (-% 5,4) baino hobeagoa izan da. Azkenik, Zerbitzuen sektorean, lanpostuek bilakaera negatiboa izan dute; urte arteko beherakada % 2,7koa izan da, eta hiruhilekoen artekoa, % 3,8koa.

Lurralde Historikoetako BPGren bilakaera dela eta, Arabak urte arteko -% 3,3ko tasa izan du, Bizkaiak, -% 3,2koa eta Gipuzkoak, -% 3,1ekoa.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf.: 945 01 75 62